

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



25. Informazio Buletina
2008ko Ekaina





AIPAGARRIAK

Frantziak bere gain hartu du Europar Batasuneko presidentetza

“Erronkei aurre egiteko lan egiten duen Europa” lelopean, Frantziak bere gain hartu du Europar Batasuneko presidentetza urteko bigarren seihilekorako. Frantziako laneko programan agertzen den moduan, Europar Batasunak aurre egin beharko die aurrean dituen erronka ugariari: klima, ekologia, migrazioa, osasuna, elikadura, ekonomia eta finantza arlokoak. Erronka horiek guztiak mundualizazioaren erronkak dira eta europarren ardura nagusia bihurtu dira eta irtenbide kolektiboaren zain daude.

Frantziako presidentetzak herritarren ardura nagusiei erantzuna emateko asmoz finkatu du programa. Zehazki, lau lehentasun nagusi finkatu dituzte: energia eta klima, migrazioa, nekazaritza, eta segurtasuna eta defentsa gaiak.

Horretarako, Europar Batasunak itxaropen horiei erantzuna emateko beharrezko baliabideak eta gogoia badituela aipatu dute. Hasiera-hasieratik Europako proiektuaren oinarri izan ziren eta haren nortasuna mundu mailan zehazten duten balioak ditu indargune nagusi. Balio horiek Batasun baitan zein handik kanpo babestu eta bultzatu behar ditu.

Informazio gehiago:

<http://www.ue2008.fr/PFUE/lang/es/accueil>

Laneko programa:

http://www.ue2008.fr/webdav/site/PFUE/shared/ProgrammePFUE/Programme_ES.pdf

Europar Batasuneko kohesio ekonomikoaren eta sozialaren inguruko bosgarren txostena: eskualdeen arteko bateratasunak aurrera jarraitzen du

2000 eta 2005 urteen artean, bateratasuneko eskualdeek (per capita BPG komunitateko batez bestekoaren % 75 baino baxuagoa dutenak) Europar Batasuneko gainerako herrialdeetako baino % 50 handiagoko per capita BPGren igoera izan zuten. Era berean, eskualde horietako langabezi tasa % 3 jaitsi zen.

Europako Batasuneko komunikazioak, era berean, epe ertainera hazteko perspektiba onak dituzten sektoreak identifikatu ditu bateratasuneko eskualde horietan zein eskualde mailako lehiakortasunaren eta enpleguaren helburuaren baitan sartuta dauden eskualdeetan. Hauek dira sektoreak: finantza eta enpresa arloko zerbitzuak; merkataritza, garraioa eta komunikazioak, eta teknologia altuko eta ertaineko industria.

Teknologia altuko industria EBk abantaila lehiakorra duen produkzio arloko eremua da. Ekipamendu elektrikoaren eta optikoaren fabrikazioa, ekipamendu kirurgikoa, teknologia aeroespaziala eta produktu farmazeutikoak biltzen ditu.





Era berean, berrikuntzan, hezkuntzan eta prestakuntzan inbertsio gehiago egin beharra dagoela azpimarratzen du: Eskualderik garatuenetan, ikerkuntzara eta garapenera bideratutako BPGren kuota batasuneko eskualdeetan baino hiru aldiz handiagoa da, baina Estatu Batuetakoa baino % 15 txikiagoa. Era berean, Europar Batasunak bere BPGren ehuneko txikiagoa bideratu ohi du goi mailako hezkuntzara: % 1,2; aldiz, Estatu Batuetakoa % 2,9 da.

Informazio gehiago (ingelesez/frantsesez):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/reports/interim5_en.htm

Europar Batasuneko presio fiskalaren batez bestekoa BPGren % 39,9n kokatu da

2006. urtean, EB-27ko presio fiskala (derrigorrezko zerga eta kotizazio sozial efektiboak) % 39,9koa izan zen BPGri dagokionez, baina aurreko urtearekin alderatuta, apur bat handitu egin zen % 39,3tik Eurostaten argitalpen honetan ikus daitekeen moduan: "Taxation trends in the European Union" (Zergen joerak Europar Batasunean).

Presio fiskalik handiena duten herrialdeak Danimarka (% 49,1), Suedia (% 48,9) eta Belgika (% 44,6) dira. Frantziakoa % 44,2koa da, eta Espainiakoa, aldiz, % 36,5koa.

Azken hamarkadan, presio fiskala apur bat gutxitu da BPGri dagokionez; izan ere, EB-27ren kasuan, % 40,3koa zen 1996an.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/pls/portal/docs/PAGE/PGP_PRD_CAT_PREREL/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008_MONTH_06/2-26062008-EN-AP.PDF





KOHESIO POLITIKA

2013. urtearen ondorengo kohesio politika: Kontsulta publikoaren inguruko txostena

Kohesioari buruzko komunikazioaren lehen zatiak 2007ko irailaren eta 2008ko otsailaren artean Batzordeak abian jarri zuen kohesio politikaren etorkizunaren inguruan egindako kontsulta publikoan jasotako ekarpenak laburtzen ditu.

Agintari nazionalen, eskualde mailako eta tokian tokioen, ordezkari ekonomikoen eta sozialen, erakunde akademikoen eta ikerketako zentroetako arduradunen ehun erantzun baino gehiago jaso zituzten (guztira, kide diren hamazazpi estatuk hartu zuen parte). Ekarpen horiek aurrekontuaren berrikuspenari dagokion testuinguruan aztertu zituzten eta hausnarketak, aldiz, EBren gastuari dagokion lehentasunarekin lotuta.

- asmo handiko Europako kohesio politika behar dela zioen adostasuna, EBko eskualde guztiek jaso ditzaten horren onurak; bestetik, "birnazionalizazioa" lortzearen ideia gaitzestea modu irmoan.
- Europako lehentasun batzuetan eragina izango duten inbertsioak eskatzea: berrikuntza, hezkuntza, enpresa txikiei eta ertainei laguntza ematea, EB osoan azpiegitura eta aldaketa klimatikoaren aurkako borroka; politikaren "ekologizazio" handiagoa egiteko aholkua.
- kohesio politikaren eta EBko beste sektore mailako politika batzuen arteko koordinazio handiagoaren aldeko deia erronken konplexutasuna dela eta; gainera, testuinguru horren baitan, Batzordeari egindako deia kohesio politikaren eta landatar garapenerako politiken arteko loturak bultzatzea;
- politikak gehiago errazteko eta tokiko zein eskualde mailako agintarien parte hartze handiagoa izateko deia;
- mugaz gaindiko trukeak, lurralde mailako lankidetzarako nazio artekoak zein eskualde baitakoak, Europako kohesio politikaren balio erantsiaren adibiderik egokien gisa; arlo horretarako baliabide gehiago esleitzearekin lotutako erantzunetako deia.

Informazio gehiago (ingelesez/frantsesez):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/reports/interim5_en.htm

Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) finantzaturako proiektu berritzaileak: Kasuaren azterketa

EGEFk finantzaturako proiektu berritzaileen azterketak kasuko 60 azterketa aurkezten ditu eta, gainera, proiektuen hamar azterketa konparatibo biltzen ditu.

Bestalde, "erraz erabiltzeko" metodologia aurkezten du; metodologia hori DG Regioko (edo edozein analista) arduradunentzat diseinatu dute espezifikoki etorkizunean kasuen antzeko ikerketak egin ahal izateko.

Informazio gehiago (ingelesez/frantsesez):

http://ec.europa.eu/regional_policy/cooperation/interregional/ecochange/studies_en.cfm?nmenu=5





KOMUNITATEKO POLITIKAK

Enpresa Txikiaren Legea Europarako

Europako Batzordeak Europarako Enpresa Txikiaren Legea ezagutarazi du; legeak hamar printzipio nagusi ditu, eta ETEen jarduera errazteko helburuarekin Batzordeak zein bertako kide diren estatuek abian jarri beharko dituzten neurri politiko batzuk proposatzen ditu.

Gainera, Batzordeak batez ere ETEetan eragina izango duten lau eremutan legegintza arloko neurri berriak proposatzea erabaki du:

- Estatu mailako laguntzen arloan, kategorien arabera salbuespena biltzen duen araudi orokor berriak prozedurak erraztu eta kostuak gutxituko ditu.
- Europako enpresa pribatuaren estatutu berria.
- BEZaren inguruko proposamen berria tokian-tokian eskainitako zerbitzuetan murriztutako BEZ motak aplikatzeko aukerarekin.
- berankortasunaren inguruko komunitateko arteztarauaren aldaketa.

Enpresa Txikiaren Legeak asmo handiko neurrien multzoa biltzen du; horien helburua ETEek merkatu bakarraren onurak erabat eskuratu ahal izatea eta nazioarteko merkatuetan pixkanaka sartzea da. Era berean, enpresa txikiak finantzaketara, ikerketara, garapenera eta berrikuntzara sarbidea izan dezaten baliabide gehiago bideratzea ahalbidetuko du legeak. Neurri horien bidez, gainera, ETEek araudi mailako prozesuan parte hartu, kontratu publikoak eskuratu eta ingurumen arloko arazoak enpresen aukera bihurtu ahal izango dituzte.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/enterprise/entrepreneurship/sba_en.htm

Ondo zahartzea: irtenbide digital berriak adinduentzat

“Hobeto zahartzea informazioaren gizartean” izeneko ekintza planak Europako zahartze demografikoak biltzen dituen erronkei eta aukerei aurre egin ahal izateko IKTak bereziki erabilgarriak izan daitezkeen lehentasunezko arloak eta ekintzak identifikatzen ditu.

Oztopo nagusiak aztertzen ditu merkatuaren prestaketari, produktuen eta zerbitzuen egokitasunari eta eskuragarritasunari eta negozio ereduak eta zerbitzuak eskaintzearen jasangarritasunari dagokionez. Ekintza planaren oinarria interesdunen arteko lankidetzara indartua da eta haren helburu nagusia Europaren zahartzearekin eta Europaz kanpokoarekin lotura duten IKTen etorkizun handiko potentziala ustiatzea da.

Proposamena duela urtebete aurkeztu zuen Batzordeak eta martxoan onartu zuen Europako Parlamentuak. Guztira, 150 milioi euro gehiagoko ekarpena egingo du Europako ikerkuntzako programa bateratu berria finantzatzeko eta proiektuaren guztizko inbertsioa 600 milioi eurokoa izango da.

Programa berri horri esker, enpresek berrikuntza maila altuko produktu eta zerbitzu digitalak sortu ahal izango dituzte adinekoen bizitzak hobetzeko etxean, lantokian zein gizartean, oro har.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2007:0332:FIN:ES:PDF>





DOKUMENTUAK

Kosten eta irabazien azterketarako gida

Europako Batzordeak prestatutako inbertsio proiektuen kostuak-irabaziak aztertzeke gida EBko funtsekin batera kohesio politikako testuinguruaren baitan finantzaturako "proiektu handiak" izenekoaren kostuak eta irabaziak aztertzeaz arduratu ohi diren langileei zuzenduta dago batez ere.

Gidak, era berean, proiektuen sustatzaileei zuzendutako orientabide metodologiko erabilgarri batzuk eskaintzen ditu eta "proiektu handien" ebaluazioaz arduratu ohi diren Batzordeko funtzionarioentzako erreferentzia ere izan daiteke.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/guides/cost/guide2008_en.pdf

Espainia Europar Batasuna-27n

Argitalpen hori Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) prestatu ohi du, eta Espainiak Europar Batasunean (EB) duen egoeraren inguruko ikuspegia eskaintzen du.

Dokumentuak, hainbat grafikorekin batera, lau gai nagusi biltzen ditu. Hauek dira gaiak: biztanleria eta lurraldea, ekonomia, laneko merkatua eta gizartea. Gai horiek hemezortzi ataletan egituratuta daude.

Informazio gehiago:

<http://www.ine.es/prodyser/pubweb/espue27/espue27.htm>

Finlandiako Txosten Ekonomikoa 2008

ELGAK Finlandiako ekonomiarako prestatu duen txostenak (garapen ekonomikoari eta sozialari esker Europan erreferentia den herrialdea da) etorkizuneko erronka hauek agertzen ditu:

- epe luzerako jasangarritasun fiskala bermatzea
- errentaren gaineko zergapetzea modu eragingarrian handitzea, lanarekiko zergapetzea gutxituz, batez ere diru sarrera handien kasuan, eta kapitalarekiko zergapetzea handitzea.
- gastu publikoaren eragingarritasuna handitzea, hornitzaile pribatuen eta publikoen arteko gaitasuna bultzatuz.
- enpleguaren sorkuntza eta laneko mugigarritasunaren sustapena handitzea.
- goi mailako hezkuntza sistema berritzea.
- Finlandia atzerriko langileentzako erakargarriago bihurtzea.

Informazio gehiago (ingelesez):

<http://www.oecd.org/dataoecd/45/57/40673434.pdf>





ADIERAZLEAK

Luxenburgoko biztanle bakoitzeko BPG Bulgariakoa baino zazpi aldiz handiagoa da

Europar Batasuneko kide diren estatuetako biztanle bakoitzeko BPG, estatuen arteko prezioen aldeak desagertu ondoren, EB-27ko batez bestekoa den % 38tik Luxenburgori dagokion % 276raino aldatzen dira Eurostatek 2007. urtearen inguruan egindako lehen estimazioen arabera.

Batasuneko batez bestekoaren % 125 gainditzen duten estatuak, Luxenburgoz gain, hauek dira: Irlanda (% 146), Herbehereak (% 131), Austria (% 128) eta Suedia (% 126).

Beste muturrean, aldiz, % 75 baino gutxiagoko errenta duten herrialdeen artean, Bulgariaz gain, hauek daude: Errumania (% 41), Polonia (% 54), Letonia (% 58), Lituania (% 60), Hungaria (% 63), Eslovakia (% 69) eta Estonia (% 72).

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/pls/portal/docs/PAGE/PGP_PRD_CAT_PREREL/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008_MONTH_07/2-09072008-EN-AP.PDF

Europako etxeek beren gastuen herena bideratu ohi dute etxebizitzara

Etxebizitza da Europako etxeetako gastuaren helmuga nagusia gastuaren aurrekontuaren inguruan Eurostatek egin zuen inkestaren arabera (2005. urteari dagokiona).

Gastuaren herena ostatu gastuetara bideratu ohi da (ura, gasa, elektrizitatea eta altzariak barne) EB-27 osoan. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da arlo horrek Bulgarian (% 38) eta Luxenburgon (% 37) duten garrantzia.

Jarraian, gastu bolumenari dagokionez, elikadurako produktuak, edariak eta tabakoa agertzen dira (ia gastu osoaren bostena). Gastu horrek guztizko gastuarekin alderatuta duen diferentzia estatuen artean nabarmen aldatzen da. Errumanian, Lituania, Bulgarian eta Eslovakian, esate baterako, horren partaidetza askoz ere handiagoa da.

Gastuko gainerako taldeek presentzia txikiagoa dute eta horien artean azpimarratu beharrekoak dira hauek: garraioa (EB-27ko batez bestekoari dagokion guztizko gastuaren % 12), aisia eta kultura (% 8) eta jantziak eta oinetakoak (% 6).

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/pls/portal/docs/PAGE/PGP_PRD_CAT_PREREL/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008/PGE_CAT_PREREL_YEAR_2008_MONTH_06/3-19062008-EN-AP.PDF





PARTAIDETZA

Europako biztanleriaren erdiak konfiantza du Batasuneko erakundeetan

Batasuneko kide diren estatuetak 30.000 pertsoneri egindako Eurobarometroaren inkestaren arabera, biztanleriaren % 50ek konfiantza du erakunde horietan. Herrialdeei dagokienez, Zipre, Estonia, Belgika eta Eslovakia nabarmendu behar dira. Konfiantza mailarik baxuena Erresuma Batuan eta Austrian agertu da.

Bestalde, biztanleriaren % 52k uste du Batasuneko kide izatea ona dela; aldiz, % 14ren arabera, txarra da.

Batasunaren aldekoenak Herbeheretako herritarrak dira eta haien jarraian, Irlandakoak eta Luxenburgokoak.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/public_opinion/index_en.htm

Sektore publikoaren informazioari buruzko kontsulta

Erakunde publikoek informazio kopuru handiak pilatu eta hedatu ohi dituzte: informazio meteorologikoa eta zirkulazioari buruzkoa, finantza datuak, mapa digitalak edo informazio turistikoa, esate baterako.

Sektore publikoaren inguruko informazio erabilgarri hori balio erantsiko zerbitzu berrietarako izan daiteke baliagarri, baina, askotan, informazioa berriz erabiltzea zaila izaten da enpresentzat eta partikularrentzat. Erabilera hori hobetzeko asmoz, Europako Batzordeak kontsulta publikoa jarri du abian eta zabalik izango da uztailaren 31ra arte.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/information_society/policy/psi/index_en.htm

